

Eskuzko
jaialdia Eibarko
Astelenatik

ETB1 • 17:00etan

Bi partidu eskainiko dituzte: Goñi I.a-Apeztegia/Tolosa III.a-Sukia. Eta, Etxaniz-Otxandorena/Olaizola II.a- Auxkin.



gaurko filmak / Ane Muñoz

■ LA TIA TULA.

Picazoren drama zahar hau, Unamunoren eleberrian oinarritua, Espainiako zinemagintzan ia klasikoa bilakatu da eta, batik bat, oso garrantzitsua da 60ko hamarkadako Espainiako filmak aztertzean. Aurpegi ezagunak agertzen dira; rol nagusia, Aurora Bautistak jokatzen du, Carlos Estradaren alboan. Filmak, egun existitzen ez diren neska-zahar horietako baten egunerokotasuna erakusten du, zuri-beltzeko irudi landuen bitartez.

■ YANQUIS.

Schlesingerren lan txikietakoa da, Richard Gere eta Vanessa Redgravek beste aktore ezagunekin antzeztua. Hiru soldadu estatubatuarrek, hiru neska britainiar ezagutuko dituzte, gerra giroan. Argumentua, hain zuzen, seikote horren gorabehera sentimentalengururatu inguruan garatzen da. Egun zaharkituxea geratu da, baina gutxienez entretenigarria da.

■ EL CAPITAN PANAMA.

Abenturazko melodrama txiki, arrunt eta zahartxo honen erakargarritasun nagusia, edo bakarra, bikote protagonistan datza. Rock Hudson eta Yvonne de Carlo izarrak dira, eta nabari da filma haien luzimendurako sortua dela; izan ere, argumentua, bikotearen neurria egokitua baitago. Mitoza-leentzat sikiera, ez dago gaizki.

■ LEY. 627.

Tavernier maisuak, fikzioa alde batera utzi eta irudiok errealismo handiz filmatu zituen, lan eder hau erreportaia baten antzera planteatuz. Droga trafikatzailer batzuen atzetik dabilen polizia talde baten inguruan garatzen da; polizia horietako baten urratsak jarraituko ditugu, nagusiki. Oso berezia da eta kalitatezkoa, Tavernierren lan guztiak bezala.

Tranpaz tranpa eratutako 'thriller'-a

■ SEVEN. Hollywooden sortutako *thriller* garesti eta arrakastatsu hau, Brad Pitt eta Gwyneth Paltrow mirestuak bikote zirenean sortua, arretaz ikusten den intrigazko abentura iluna, ezerosoa, biolentia eta ezatsegina da. Detektibe gazte batek, inguruan gertatu berri diren hilketa misteriosu batzuen eragilea aurkitu beharko du; hilketok, gero eta eragin handiagoa izango dute harengan, izan ere, biktimek berarekin harreman estua baitute eta, berehala ohartuko da hiltzailea oso gertu daukala. Hura da psikopata gupidagabea ! Argumentua orijinaltzat saldu baziguten ere, nahikoa topikoa da eta tranpaz josita dago, halaber, azken batean gaizkilea edonor izan baitaiteke. Hala eta guztiz ere, ederki filmatua dago eta giro itogarria lortzen du, ikuslea ezeroso sentiaraziz. Morgan Freemanek rol garrantzitsua jokatzen du.

Un horizonte muy lejano

1992, Ron Howard, 134 m. 15:35 TVE1

Yanquis

1979, John Schlesinger, 132 m. 15:40 ETB2

El gran Scout

1995, Greg Beeman, 90 m. 15:50 A3

La ira de un río

1997, Bruce Pittman, 88 m. 16:25 T5

Johny peligroso

1984, Amy Heckerling, 86 m. 18:10 ETB2

El capitán Panamá

1952, Sidney Salkow, 77 m. 18:25 TVE1

L. 627

1992, Bertrand Tavernier, 140 m. 20:50 F2

La soif de l'or

1992, Gerard Oury, 85 m. 20:55 TF1

Iheslariak

1996, Kevin Hooks, 93 m. 21:30 ETB1

Asesinato en el espejo

1999, James Keach, 82 m. 21:40 TVE1

Juego de supervivencia

1994, Ernest R. Dickerson, 92 m. 22:00 ETB2

Seven

1995, David Fincher, 130 m. 22:40 TF1

Etxera bidean

1978, Hal Ashby, 122 m. 23:35 ETB1

Signé Arsène Lupin

1959, Yves Robert, 95 m. 23:20 Arte

El cementerio viviente

1992, Mary Lambert, 92 m. 23:40 TVE1

La passion de Jeanne d'Arc

1928, Carl Theodor, 85 m. 00:00 F3

La sal de la vida

1995, Eugenio Martín, 92 m. 00:20 A3

Gerra y paz

1956, King Vidor, 189 m. 01:45 T5

Nefertiti

Guy Gilles. 02:05 ETB2

Buscando a la mujer perfecta

1994, Gavin Wilding, 96 m. 02:10 A3

Galáctica

1978, Richard a Colla, 129 m. 02:20 TVE1

La tia Tula

1964, Miguel Picazo, 102 m. 02:20 La 2

La curiosa

1972, Vicente Escrivá, 85 m. 04:10 La 2

El declive de la civilización

1989, Penelope Spheeris, 95 m. 04:20 A3

Escuadra antigangsters

1979, Ron Howard, 86 m. 04:30 TVE1

▲ ▲▲ ▲▲▲ ▲▲▲▲ ▲▲▲▲
TXARRA ESKASA BALEKOA ONA BIKAINA

Brad Pitt aktorea Seven filmeko irudi batean.

ETB 1

07:25: Ate irekia.

07:50: Euskal Herritik.

08:50: Euskal Herrirako garaia.

08:55: Divertimento.

10:15: Egi bidean.

10:30: Meza.

11:30: Kirolez kirol.

Gure kintzea (11:30).
Waterpolo: Askartza Leioa-Moscardo (11:45). Urrezko aizkora: Nazabal-Larretxea (12:45).

14:00: Gaur egun. Albistegia.

14:45: Bertso jaialdia KMK00.

16:05: Sustraia.

16:35: Algara.

16:55: Kirolez Kirol.

Pilota: eskuz binaka.
Goñi I.a-Apeztegia / Tolosa III.a-Sukia.

Pilota: eskuz binaka.
Etxaniz-Otxandorena / Olaizola II.a-Auxkin.

Futbol laburpenak
(19:00etan).

20:00: Albisteak.

20:10: Futbol laburpenak.

21:15: Lazkao Txiki.

21:30: Zine Oro.

Iheslariak.

Zuz.: Kevin Hooks.
Akt.: Laurence Fishburne, Stephen Baldwin. 1996.

23:20: Zine keinuak.

23:35: Zinema.

Etxera bidean.

Zuz.: Hal Ashby. Akt.: John Voight, Jane Fonda. 1978.

01:40: 21. Mendeko arka. Dokumentalak.

02:40: Bidaide. Dokumentalak.

04:15: Gure familia eta beste piztia batzuk. Telesaila.

05:05: Haran eta gailur. Dokumentalak.

06:05: Ikusgela.

07:00: Amama sukaldari.

07:10: Herri musika sorta.

ETB 2

08:00: Vida salvaje.

08:45: Espias vascos.

09:10: Tiempo para Euskal Herria.

09:25: El zoo humano.

09:50: El imperio del sol.

10:20: Luar.

12:00: Lengua viva.

12:30: Palabra de ley.

13:00: Sustraia.

13:35: Mundo. Hoy. Mirentxu Purroyk aurkeztutako erreportaje saioa.

14:30: La niñera. Telesaila.

14:58: Teleberri.

15:40: Zinema.

Yanquis.

Zuzendaria: John Schlesinger. Aktoreak: Richard Gere, Vanessa Redgrave. 1979.

18:10: Zinema.

Johnny peligroso.

Zuzendaria: Amy Heckerling. Aktoreak: Michael, Jioe Piscopo. 1984.

19:35: Zoombados.

20:28: Teleberri. Albistegia.

21:15: El derby.

22:00: Zinema.

Juego de supervivencia.

Zuzendaria: Ernest R. Dickerson. Aktoreak: F. Murray Abraham, Gary Busey. 1994.

23:50: Medias de seda. Telesaila.

02:05: Zinema.

Nefertiti.

Zuzendaria: Guy Gilles. Aktoreak: Ben Gazzara, Michela di Torredepadula.

03:40: Adderly. Telesaila.

04:25: Amaiera.



irratia ♦

Radio Euskadi. Gaurkoan, *Más que palabras* saioan, Javier Vizcainok Imanol Zubero EHuko soziologiako irakasleari elkarrizketa egingo dio. Imanol Zubero Bakearen Aldeko Koordinakundearen sortzailea ere bada. Ondoren, Aquilino Polaino psikiatrak Espainian adopzioaren egoera zein den esango du. Imanol Kerejeta psikiatrak ere bere tartetxoa eskainiko du, gaurkoan kleptomaniari buruz. *7, calle del trinkete* saioan, berriaz, *Yoyes* filma zuzendu duen

Helena Tabernarekin hitz egingo dute. Eta Juan Garmendiarekin Udako festak liburua izango dute hizpide. Astero bezala, Carmele Txatek interneteko berrikuntzen gainean jardungo du, eta ondoren Alfred Hitchcocki buruz jardungo dute, hil zela hoguei urte bete direnean.

Herri Irratia. 07:30ean, *Haize bolada* saioarekin ekingo diote egunari. 08:30etan, errosarioa errezatuko dute, eta 09:00etan

meza. Ondoren, *Haize bolada*-ren bigarren atalari ekingo diote, eta kirolen berri 13:30etatik 14:30etara emango dute *La movida deportiva* saioan. 14:30etan, Jesus Torquemadak aurkezturik, *La brújula* entzuteko aukera izango da. Gaurkoan Guatemala aldera egingo dute bidaia. Hurrengo bi orduetan musika eskainiko dute, eta 17:30etatik aurrera Errealak Malagaren aurka jokatu duen partidua eskainiko dute Anoetatik zuzenean.